

JESUS ETA ERREGE SANTUAK

1

Belenerako idean datoz
 sortzaldetik hiru Mago,
 ganbelu eta izar kontuan
 ni neu hain ziur ez nago.
 Azal dotorez ondo jantzita
 egi haundi bat hor dago,
 azala baino egia bera
 da guretzat ederrago.

3

Belen-bidean nahastean datoz
 argia eta iluna,
 hortxe agertzen da bakoitzaren
 neurri ta zintzotasuna.
 Eta Bibliak eskeintzen deutse
 behar dan laguntasuna,
 bila doazen Jesus Bera da
 euren bideko laguna.

5

Bere ondoan pozez zoratzen
 Jose ta Ama Maria,
 ingurufan aintza-goraka
 aingerutxo kantaria.
 Magoak ahuspez opa deutsoe
 kutxetako oparia,
 baina Jesusek emon deustie
 ederrago dan saria.

2

Fede-bidea, bide luzea
 Belenera daroana,
 bizitzak berak dirauan arte
 inoiz amaitzen ez dana.
 "Ez ete dana amets hutsa ta
 alperrikako afana?"
 Hamaika bider damu ere bai
 bidean hasi izana.

4

Laino montorrak uxatu eta
 barrero zeru urdina,
 izarra dizdiz euren aurretik,
 bai gidari atsegina!
 Ez da alperrik izan bidean
 jarri daben ahalegina,
 aska baten aurkitu dabe
 Mesias ume egina.

6

Magoen kontu horrek badauka
 danontzat zeintzun betea,
 Jesusen bila goaz guztiok
 hau da kristau izatea.
 "Erregeenak" hartzea dogu
 gehienok borondatea,
 askoz hobe da bizitzan zehar
 "Erregeena" egitea.